

KUDEAKETA INTEGRATUKO POLITIKA

BIC ARABAK (SPRI taldearen baitan dagoenak) enpresa-ehuna lehiakortasunez eraldatzeko tresna modura Europan erreferentzia izatea du helburu, erakundearen izaera berritzaile eta ekintzailearen bidez.

BIC Arabaren misioa da Arabako berrikuntza-enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzea, bultzatzea eta sustatzea, modu horretan, Euskadin aberastasuna sortzen laguntzeko eta herritarren ongizatea hobetzen laguntzeko, SPRI taldearen esparruko giza garapen iraunkorraren bidez.

Hori lortzeko, BIC ARABAK bere KUDEAKETA-POLITIKA ezartzen du:

Horren bidez adierazten du bere lehentasuna bezeroaren eta alderdi interesdunen gogobetetasuna lortzea dela, bai eta ingurumena babestea ere, kutsaduraren prebentzioa barne. Era berean, BIC ARABAK funtsezko elementu estrategikotzat jotzen du eskaintzen dituen zerbitzuak etengabe hobetzea, bai kalitatearen arloan, bai ingurumenaren arloan.

Gure helburuak lortzeko:

Guztiok inplikatu behar dugu, informazio egokia emanaz eta jasoz, erakunde osoan ingurumen-kalitatea eta -jarduna etengabe bermatzeko eta hobetzeko; hori baita gure bezero eta interes-taldeentzako bermerik onena.

Arlo guztietako kide guztiek taldean lan eginez eta komunikazioa bultzatuz, motibazioa areagotzea lortzen dugu, baita gure produktu eta zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzea ere, BIC ARABAZ harro sentiaraziz, baina are gehiago gure profesionaltasunaz.

Erakunde gisa daukagun konpromisoaren oinarria SPRI taldearen bikaintasun-zimenduetan oinarritzen da:

Helburuen koherentzia eta lidergoa

Bezeroarekiko orientazioa

Pertsonen garapena eta inplikazioa

Prozesu eta egitateen araberako kudeaketa.

Ikasketa, berrikuntza eta etengabeko hobekuntza

Aliantzen garapena

Erantzukizun soziala

Gure kudeaketa-sistema gure erakundearen lehiakortasuna, errentagarritasuna, biziraupena eta etengabeko garapena lortzeko funtsezko tresna estrategikoa dela ulertzen dugu. Hori guztia legezko eta arauzko baldintzak eta bezeroenak betez egiten dugu. Eta, batez ere, Arabako berrikuntza-enpresen eta, oro har, gizartearen zerbitzura lan egiten dugula ulertuta.

Gasteizen 2022ko Maiatzaren 24an.

Zuzendaritza